

Culture & nature speak english in Busturialdea

Lekua: Busturialdea (Bizkaia) www.busturialdeaurdaibai.com
Modalitatea: gizarte-lana haur eta gazteekin - Kultura-animazioa
Helburua: ingelesaren ikaskuntza eta erabilera bultzatzea eskualdeko haur eta gazteengan.
Egunak: uztailaren 1etik 15era // uztailaren 16tik 30era
Adina: 18-25 urte
Plazak: 15
Mota: nazioartekoa
Hizkuntza: ingelesa
Kuota: 72 €

Busturialdeko eskualdea Bizkaiko ekialdean kokaturik dago. Guztira, 20 udalerrik osatzen dute: Bermeo, Elantxobe, Gernika-Lumo, Ibarrangelu, Kortezubi, Morga, Mundaka eta abar.

Bere zabalera eta naturaren kontserbazio-maila aparta dela-eta, Euskadin paisaia-aniztasun eta ekologikorik handienetakoa duen guneta naturala da. Hain zuzen ere, eskualdeak hartzen duen azalera gehiena Gizadiaren Ondare eta Biosferaren Erreserba (Urdaibaiko Biosferaren Erreserba) izendatu zuten 1984an.

Eskualdea osatzen duten 20 udalerrietatik, 15ek 2.000 biztanle baino gutxiago dituzte. Beraz, hezkuntza-premiak egun beteta egon arren, eskualdeko gazteentzako aisia-aukeretan gabezia ugari dago. Urremendi Landa Garapen Elkarteak *Culture & nature speak english in Busturialdea* auzolandegia abiarazi du, eskualdeko kultura- eta aisia-premiak estaltzen laguntze aldera. Auzolandegiko boluntarioak eskualdean bizi diren 3 eta 14 urte bitarteko haur eta gazte talde baten ingelesezko ezagutzak hobetzeaz arduratuko dira, betiere naturagune ikusgarriaz gozatuta. Aldi berean, auzolandegiko boluntarioek Busturialdeko ohiturak, kultura eta bizimodua ezagutuko dituzte, haur eta gazteen bitartez.

Busturialdea erabateko hobekuntzan ari da lanean, eta bertako gazteek errealitate berri horretan arrakasta izateko, ezinbestekoa da beste hizkuntza batzuk ezagutzea. Helburu hori lortzeko, ingelesaren ikaskuntza eta erabilera bultzatzeko auzolandegi gisa proposatu du Urremendik proiektu hau, haur eta gazte horiek euren garapenean beste hizkuntza batzuk ezagutzeak duen garrantziaz jabe daitezten. Horrela, jolasean, ingelesarekin ohitu ez ezik, munduko beste leku batzuetatik etorritako boluntarioekin harremanetan ere egongo dira.

Estekak ikusteko, sakatu "Ctrl" eta egizu klik testuaren gainean
<http://www.bizkaiaeuskalkostaldea.com/>

LANAREN DESKRIBAPENA

Auzolandegi honen helburu nagusia da hainbat kulturatako pertsonek esperientziak partekatzea, elkarrengandik ikastea, lan egitea eta elkarrekin ondo pasatzea; azken buruan, elkarbizitzan aritu eta guztientzako esperientzia aberasgarrian parte hartzea.

Hauek dira **auzolandegiaren xedeak**:

- Boluntarioek komunitatearen onurarako jardueretan parte hartzea bultzatzea (haur eta gazteekin lan egitea). Haurrekin garatu beharreko prestakuntza- eta jolas-jardueren plangintza egitea eta gauzatzea.
- Haur eta gazte horiek oporrretan aktibo izatea eta, eskualdetik irten gabe, beste herrialde batzuetako jendearekin egoteko aukera izatea.
- Munduko hainbat lekutako gazteen arteko harremanak sustatzea, bai eta elkar ezagutzea ere.
- Ingurune zoragarri horretan, naturarekiko errespetua eta sentsibiltatea bultzatzea.
- Prestakuntza-aldia eta aisialdia uztartzea.

ANIMAZIO JARDUERAK

Animazio-taldeak hainbat ekintza proposatuko ditu, parte-hartzaileek ingurunea eta Euskal Herriko kultura eta ohiturak ezagutu ditzaten (kirol-jarduerak, jolasak, txangoak, bisitaldi kulturalak...).

Besteak beste, honako bisitaldi hauek aurreikusita daude:

- Santimamiñeko kobazuloak eta Basondo.
- Omako basoa (Ibarrolaren baso biziduna)
- Gernika (museoa eta azoka)
- Bermeo eta Elantxobe, itsasontziz.

Animazio-taldeak kontuan hartuko ditu boluntarioen proposamenak. Ekintza horiek guztiak arratsaldero eta asteburuetan egingo dira, eta bertan auzolandegiko kide guztiek parte hartuko dute.

AUZOLANDEGIRA ERAMAN BEHARREKO GAUZAK

- Lo egiteko zakua
- Burkoa (behar baldin baduzu)
- Dutxarako eta igerilekurako toalla
- Berokiak eta euritako arropak
- Mendiko oinetakoak eta kirol egitekoak
- Kapelaren bat eguzkitarako
- Bainu-jantzia
- Bizkar-zorroa edo motxila txikia, txangoetarako

AUZOLANDEGIRA ERAMAN BEHARREKO DOKUMENTUAK

Parte hartzaile bakoitzak eraman beharko du:

- NAN edo atzerritar-txartela edo pasaporte
- **Osasun Txartel Indibiduala**

AUZOLANDEGIAREN KOKAPENA ETA OSTATUA

Auzolandegiaren kokapena: Busturialdeko herrietako batean. Auzolandegian aurreikusitako jardueretan parte hartuko duten eskualdeko haur eta gazteak bertara joango dira egunero.

Ostatua: Kortezubiko aterpetxean. Sukalde eta jantoki egokiak ditu, logelak eta egongela zabala.

AUZOLANDEGIAN HASTEAK

Txanda bakoitzaren lehen egunean, elkartzeko noiz-nongoak adostuko dira. Ordu horretarako iritsi ezin denak –betiere, justifikatutako arrazoi bat dela medio–, aurretik Eusko Jaurlaritzaren Gazteria Zuzendaritzari jakinarazi beharko dio, eta hurrengo 24 orduetan, bederen, ailegatu beharko du auzolandegira.

NOLA IRITSI AUZOLANDEGIRA

Eskualdeari buruzko informazio gehiago: www.turismoa.euskadi.net

- **Bilbotik:**

BIZKAI BUS autobusak (irteera: Bilboko autobus-geltokia, Termibus)

Tel.: 902 22 22 65

webgunea: <http://www.bizkaia.net>

- **Donostiatik:**

PESA autobusak (Irteera: Pio XII.a plaza)

Tel.: 902 10 12 10 <http://www.pesa.net>

AUZOLANDEGIAREN AMAIERA

Auzolandegia azken egunean amaituko da, gosaria hartu eta gero, goizeko 09:00-10:00 bitartean.

ASEGURUA

Eusko Jaurlaritzak gazte bakoitzari **istripurako eta erantzukizun zibilerako aseguru**a egingo dio. Dena den, gaixotasun berezirik edo ahalmen-urritasunik edukiz gero, horren berri eman behar zaio **Eusko Jaurlaritzari**, Jaurlaritzak gazteak behar dituen estaldurak sar ditzan aseguru polizan.

Gazte bakoitzak bere **osasun-txartela** ekarri behar du auzolandegira.

ARGIBIDEAK ETA HARREMANETARAKO TELEFONOAK

Eusko Jaurlaritza. Gazteria Zuzendaritza:

-Tel: **945 01 95 01- 945 01 95 36**

-Helbide elektronikoa: gazteria-auzolandegiak@ej-gv.es

ARAUAK

Auzolandegian izena eman baino lehenago, komenigarria da auzolandegietako arauak ezagutzea. Ikusi <http://www.gazteukera.euskadi.net> webgunean (ikusi Auzolandegiak – Arauak).